


## Otsailak 11, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna

### **Azken urteetan Euskadiko unibertsitateek eskaintzen dituzten zientzien adarreko graduatan emakume gehiago graduatzen dira, gizonak baino**

Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunaren harira, Gazteen Euskal Behatokitik Euskadiko unibertsitateetan zientzien adarrean graduatutako ikasleei buruzko datuak plazaratu nahi ditugu.

2017/2018 ikasturtean (hori baita Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, Unibertsitateko irakaskuntzari buruz argitaratu duen azken datua) 466 ikaslek bukatu zuten zientzien adarreko graduren bat. Horietatik, erdiak baino gehixeago (% 54,1, hain zuzen ere) emakumeak ziren.


2013/2014 ikasturtetik 2017/2018 ikasturtera arte izandako bilakaera aztertuz gero, ikus dezakegu zientzien adarreko graduren bat bukatu dutenen artean emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa dela beti.



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek kaleratzen duen Unibertsitateko irakaskuntzari buruzko estatistika oinarri hartuta*

Sailkapen ofizialaren arabera, zientzien adarreko graduak hauek dira: Biologia, Biokimika eta biologia molekularra, Bioteknologia, Elikagaien zientzia eta teknologia, Ingurumen zientziak, Fisika, Geologia, Matematikak eta Kimika. 2017/2018 ikasturtean horietako gehienetan emakume gehiago graduatu ziren, gizonak baino; salbuespenak Fisika, Ingurumen zientziak eta Geologia graduatan gertatu ziren, kasu horietan gizonetako tituludunak emakumezkoak baino gehiago baitziren.


**2017/2018 ikasturtean Euskadiko unibertsitateetan zientzien adarreko graduak bukatu dituzten gizon eta emakumeen portzentajea**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek kaleratzen duen Unibertsitateko irakaskuntzari buruzko estatistika oinarri hartuta

Edozelan ere, 2017/2018 ikasturtean Euskadiko unibertsitateetan graduatu ziren ikasle guztien artean (gizon zein emakume, eta adar guztiak kontuan hartuta), zientzien adarrekoen pisua % 5,1 baino ez zen.

**2017/2018 ikasturtean Euskadiko unibertsitateetan graduatu ziren ikasleen banaketa ikasketa adarraren arabera (%)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek kaleratzen duen Unibertsitateko irakaskuntzari buruzko estatistika oinarri hartuta